# BERRIGARA

53. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, urriak 31



## Nekazaritza biologikoaz berrriketan

# Tomas Larrañaga

BILTOKI

dekorazioa
San Martin plaza z/g. ☎ 76 43 51.
sukalde eta bainuak
San Pedro z/g. ☎ 76 34 00.
elektragailuak
Barrenkale, 20. ☎ 76 04 71.
ikus-entzutekoak
Barrenkale, 6. ☎ 76 25 96.

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

# UGARTE

ALTZARIAK
DEKORAZIOA

## AROZTEGIA



ALTZARI TERMOAKUSTIKOAK



**San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefonoa eta faxa: 76 54 91**



## VENTANAS SAN MIGUEL

*Ventanas San Miguelekin... denean irabaziko duzu.*

*Erosotasunean irabaziko duzu.*

*Aurrezpenean eta energian irabaziko duzu.*

*Isolamenduan irabaziko duzu.*

*Konfortean irabaziko duzu.*

Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21



BERRIGARA

RROTALDE JAUREGIA
0570 Bergara
' 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

**rgitaratzailea:**
ARDUN Elkartea.
**uzendaria:**
ieko Azkarate
**rredakzioa:**
duardo Mendibil
ikel Elkoroberezibar
ine Larrañaga
**laketazioa:**
ieko Azkarate
**ublizitatea:**
ex Azkarate
**arpidetzak:**
orka Elortza
**estuen zuzenketak:**
itepan Plazaola
aripi Laskurain
ex Labaien
**rredakzio kontseilua:**
orka Elortza
iguel Angel Elkoroberezibar
ex Labaien
**omikiak:**
ttor Rodriguez
orka Ortega & Jon Alvarez
ex Ugalde
iai Azkarate
**aketa:**
antxangorri taldea
**irada:**
200 ale.
**primategia:**
ertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**opyright:**
ERRIGARA
**ge gordailua:**
5 50/91
**SN:**
30-6599

**ERRIGARAk** ez du bere gain
rtzen aldizkarian adierazitako
ianen eta iritzien erantzunkizunik.

**Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek puzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du**

## Z E B E R R I D A ?

# TOMASA ZABALETA

## *Jubilatuetako presidentea*



**- Zer erabaki zenuten joan zen asteko Batzar Orokorrean?**

- Erabakirik inportanteena jubilatuen elkartea sortzearena izan zen. Diputazioak arau batzuk aldatu ditu eta horren arabera jubilatuen kolektiboen kontzepzio berri bat ematen da. Aktiboagoak izatera eta autojestiora jo behar dugu eta beraz elkartea eratzeko erabakia hartu genuen aho batez: 198 boto alde eta 2 abstentzio izan ziren botazioan.

**- Zelako abantailak ekarriko ditu horrek?**

- Lehen ez geunkan pertsonalitate juridikoa izango dugu, Diputazioaren dirulaguntzak jasotzeko aukera eta elkartearen funtzionamenduan protagonismo eta erantzunkizun gehiago iharduerak antolatzeko orduan. Hemendik pare bat hilabetera elkartea eratuko da eta, nobedade bezala, zentroak San Joxepe izena izango du hemendik aurrera.

**- Eguneko zentroari buruz berririk?**

- Alkateak zentroak emandako laguntza eskertu zigun. Datorren urtean martxan izango da.

***"Jubilatuen elkartea eratu eta erantzunkizun gehiago izango dugu zentroan"***

## I T U R R I O N E T I K

## Herriko artisten elkarteari lokala utziko dio Udalak

Udalak Beart Bergarako artisten elkarteari lokal bat uzteko asmoa du. Orain bi urte elkartea eratu zenetik Beartek lokal baten premia azpimarratu du behin baino gehiagotan baina orain arte ez du Udalaren partetik erantzunik jaso. Urriaren hasieran Bearten Batzar Orokorra egin zen eta bertan Udalari lokalaren eskakizuna berriz egiteko erabakia hartu zen. Udala aukera hori aztertzen ari da eta baliteke Martokuako eskola artistei lagatzea. Bestalde, Beartek presidenterik gabe jarraitzen du Luis Laskurainen dimisioaren ondoren. Udalaren erantzuna jaso ondoren, Beartek batzar berri bat egingo du.

## E S A N D U T E

"Nazio guztiek berezko gaitasuna dute umeei eta etorkinei euren hizkuntza erakusteko. Ez daukate gramatika jakin beharrik eta, miraria bada ere, denek ikasten dute. Euskal Herrian historian zehar izan diren baldintza gogor eta iraunkor batzuen eraginez, ahaztu egin zaigu geure hizkuntza erakusteko dugun berezko gaitasun hori. Neurri batean umeei erakusten badakigu, baina besterik ez. Edozein modutan, ez dugu gaitasun hori galdu, lotan dago eta esnarazi nahi dugu. Eta horretarako, ikasi nahi dugunon edo ikasten dihardugunon eta dakigun guztion ahalegina behar da"

**NORA PALMITANO**
Euskaldunberria
EGIN

•

"Martin Prieto laguna rubia batek eta odolberoaldi batek sekuestratu zuten. Familia, hazienda, tabakoa, kartera eta botikak laga, eta zulo atsegin baten bila abiatu zen"

**M. GARITANO**
Kazetaria
EGIN

•



**DIAS EXTRAÑOS**
Eguena: 22:30.
Eguakitza: 17:00, 19:30 eta 22:30.



**BELLEZA ROBADA**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30 eta 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**EN LO MAS CRUDO DEL CRUDO INVIERNO**
Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ **Kathryn Bigelow** *Le llaman Bodhi* filmearen zuzendariaren azken filmea. 1999an, Los Angelesen, biolentzia eta pobrezia nagusi dira eta emozio berriak topatzea ia ezinezkoa da. *Lenny Nero*k (**Ralph Fiennes**) pertsona batek sentitu dezakeen guztia grabazio dijitaletan gordetzen du... **Angela Basset** eta **Juliette Lewis** aktoresekin.

▼▼ **Bernardo Bertolucci** ospetsuak Italian girotu du filme honetako istorioa. *Lucy Harmon* iparamerikar gazteak (**Liv Tyler**), bere amaren heriotzaren ondoren, uda Toscanan igarotzea erabaki du. *Lucy*k aurrez ezagutzen zuen *Nicolo* gaztearekin egon nahi du baina ordurarte ezagutzen ez zituen sentimenduak izango ditu. **Jeremy Irons** eta **Jean Marais**en partaidetzarekin.

▼▼ *Joe Harper* (**Michael Maloney**) lanik lortzen ez duen aktorea dugu eta *Margaretta D´Arcy* bere ajentea (**Joan Collins**) da berarengan konfiantza duen bakarra. Baina noiz arte? *Joe*k bere diruarekin Hamlet antzeztea nahi izango du eta *casting*ean era guztietako pertsonaiak ezagutuko ditu. **Kenneth Branagh**ek zuzendutako komedia.

## Deiak

▼ **Odol ateraldia** eguastenean, hilak 6, 18:30etan Seminarioan.

▼ **Ana Fernandez**en margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **1951n** jaiotako bergararren afaria izango da Antxoni jatetxean datorren azaroaren 30ean. Izenematea Antxonin (76 20 40) bertan egin daiteke.

▼ **Matinala.** “Flipper” filmea domekan 11:30etan Novedadesen.

▼ **Eibar-Gasteiz** autopistari buruzko panelak Kultur Etxean.

▼ **Agustin Zubikarai** narrazio lehiaketa. Lanak entregatzeko epea azaroaren 15era arte. Argibideak (94) 613 43 44 telefonoan.

## Ogia

▼ **Eguakitza 1:** Mizpildi.
▼ **Domeka 3:** Ogizun.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 1:** Camacho.
▼ **Zapatua 2:** Puy.
▼ **Domeka 3:** Puy.
▼ **Astelehena 4:** Guallar.
▼ **Martitzena 5:** Estella.
▼ **Eguaztena 6:** Mozos.
▼ **Eguena 7:** Camacho.

**JAUNARTZEAK, EZKONTZAK, DESPEDIDAK, KARTA, EGUNEKO MENUA, LOGELAK**




**ZABALA**
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA
Telefonoak: 76 20 07 - 76 42 57

# Biluziaren hizkuntza

## Gorputz biluziari buruzko argazkiak Kultur Etxean

*Biluziaren hizkuntza* izenburuko argazki erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxeko erakusgelan bihartik azaroaren 10era bitartean. Bertan, iazko udan Tarazona Foto izeneko foroan parte hartu zuten argazkilarien lanak ikusi ahal izango dira. Tarazona nazioarteko argazkizaleen topagunea omen da eta bertan erakusketak eta argazki tailerrak antolatzen dira. Aipatutako tailerretan espezialitate bakoitzeko argazkilari onenak izaten dira.

Joan zen urteko udan, Estatuko argazkilari onenetarikoa den Rafael Navarro irakaslearen agindutara, 12 lagun izan ziren *Biluziaren hizkuntza* lantzen, tartean Benito Cantero bergararra.



Beste batzuen artean, Benito Canteroren argazkiak ikusi ahal izango dira Kultur Etxean.

**Hamahiru argazkilariren 39 lan**

Kultur Etxeko erakusketan 39 argazki ikusi ahal izango dira, autore bakoitzak 3 lan ekarriko dituelarik. Rafael Navarro eta Benito Canterorekin batera, partaideak honako hauek izango dira: Gonzalo Ainaga Tarazonako margolari eta argazkilaria, Silvia Gonzalez Zaragozako diseinatzaile grafikoa, Antonio Benito Albaceteko administraria, Monica Cases Valentziako ikaslea, Ana Galicia Zaragozako OHOko irakaslea eta diseinatzaile grafikoa, Rosa Arianna Gallur argazkilaria eta argazkigintzako irakaslea, Joaquin Gomez kantabriarra, Miguel Martin Gonzalez informatikasistemen analista, Alberto Reyes informatiko madrildarra, Manuel Ruiz merkatari murtziarra eta Serafin Rodriguez arte irakasle asturiarra.

Benito Cantero ezaguna da Bergarako argazkigintzan. Pol-Pol Argazki Taldeko partaidea, autodidakta izan zen 1995 urtera arte, urte hartan goian aipatutako *Biluziaren hizkuntza* eta *Argia argazkigintzan. Teknika eta espresioa* izenburuko ikastaroetan parte hartu baitzuen. Gai ezberdinak lantzen dituen arren, mendia eta kiroleko gaiak ditu gustokoen eta bere lanak Natura, Pyrenaica, Foto edo Berrigara aldizkarietan argitaratu ditu. Euskal Herria zein Estatuko argazki lehiaketetan sari ugari jaso ditu Benitok.

Erakusketa bihar, ostirala, arratsaldeko 7etan inauguratuko da Kultur Etxean eta azaroaren 10era arte izango da zabalik.

Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER

Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

## Norbait gezurretan

Ni goiko estazioko etxea okupatu duen gazteetako bat naiz. Eskutitz honen bidez adierazi nahi dut norbait gezurretan ari dela. Joan den asteko Berrigarako artikulo batean esaten zuen alkateak ez zuela gurekin kontakturik eduki. Hori gezurra da.

Gu Gobernu Batzordearengana joan ginen eta gure proiektua presentatu genuen. Alkatearekin ere egon ginen bere bulegoan eta berari ere proiektua eman genion.

Alkateak esaten badu ez dela gurekin kontakturik izan, nik esaten dut Alkate gezurtero.

Goiko estazioa bizirik. Derriborik ez.

I.A.I. (NAN: 72.446.065)

## Komun publikoak noizko?

Pertsona edadetu bat naiz eta eskutitz honen bitartez Udalari herrian komun publikoak jartzeko eskaera egin nahi diot. Plaza berriztu baino lehen komun publikoak zeuden Banco Guipuzcoanoren parean, lehen kioskoa zegoen lekuaren atzealdean hain zuzen, eta komun haiek kendu zirenetik ez dituzte berriz jarri. Zergatik?

Uste dut herri denetan egon beharko liratekeela komun publikoak, bai herritarrei zerbitzu hori eskaintzeko eta bai herriaren garbitasunaren mesederako ere. Askotan Plaza inguruan lagunekin denbora dexente ematen dut eta txisagurea daukadanean inguruko tabernaren batera joan behar izaten dut, zerbait kontsumitzera behartuta nagoelarik.

Beraz, Udalari komun publikoak herri erdian jartzeko ideia aztertzeko eskatu nahi diot. Gainera ez dut uste ni naizenik interesatu bakarra, jende askori komentario bera entzun diot aspaldi honetan eta.

Ea zerbait egiten den, herriaren eta herritarren onerako izango da eta. Gainera ez dut uste aurrekontu aldetik gastu haundiegia denik. Besterik gabe, agur eta ea Udala zoriontzeko aukera ematen didaten.

M. Iturbe

## Berrigara eguenean

Aste honetako Berrigara, ohikoa den bezala ostiralean banatu beharrean ostegunean argitaratu da. Ostirala Domu Santu eguna dela eta, bai Berrigara egin eta banatzen dugunok eta baita zuek irakurleok ere, jai izango dugu. Horregatik erabaki dugu Berrigara egun bat lehenago banatzea.

Eguakitz edo eguen izan, gustora irakur dezazuela aste honetako Berrigara eta ondo igaro dezazuela astebukaera luzea. Datorren astera arte.

Berrigara

## Tiiira biraka

UNAI AZKARATE



### Xabier Arzalluz Bergaran hizlari

Xabier Arzalluz Eusko Alderdi Jeltzaleko EBBko presidenteak egungo egoera politikoari buruzko hitzaldia emango du datorren eguakitzean, azaroak 8, 19:30etan Bergarako Batzokian. Ondoren afaria izango da Batzokian eta bertara joan nahi dutenek 76 49 33 telefono zenbakian eman dezakete izena.

### Lehoi erregea bideoa salgai

Pentekoste jaietan Frontoian egin zen "Lehoi erregea" kontzertuko bideoa salgai dago Kultur Etxean, 15:30etatik aurrera, 1.300 pezetan.

### Pertxa eta Kilometroak

Pertxa elkarteko bazkide eta lagunek, 6. urtez, Kilometroakeko ibilbidea egingo dute bihar barikua goizeko 10etan Seminariotik.

**HILDAKOAK**

**Margarita Sanz Roitegi**
Urriak 23, 91 urte.
**Benedicta Gallastegi Elejalde**
Urriak 24, 80 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Aste honetan Epaitegian ez da jaiotakoen berririk jaso.**



Orain dela 6 urte etorri zen bezala, ostiralean berriz ere gure artean izango da Chulillako Musika Banda.

# Valentziako Chulilla herriko Musika Banda Bergarara

Bihar, ostirala, Chulillako (Valentzia) Musika Bandari ongi-etorria eskeiniko zaio Bergarako Udaletxean, arratsaldeko 7etan. Valentziarrak gure artean izango ditugu domekara arte, Bergarako Orkesta Sinfonikoak Aste Santuan egindako bidaiaren ordainetan. Biharko harrera ofizialaren ondoren, Musika Eskolako Orkestak Bergara eta Chulillako himnoak eskeiniko ditu Pleno aretoan bertan. Ondoren, Chulillako lagunei afaria eskeiniko zaie Lasai-Toki elkartean. Guztira 70 lagun inguru etorriko dira Chulillatik. Zapatuan, goizeko 11etan, Bergara ezagutzeko ibilbide turistikoa egingo dute eta bazkaria, berriz, Pertxa elkartean izango da. Chulillako Bandak kontzertua eskeiniko du zapatuan 7etan Novedades aretoan eta kontzertuaren ondoren, Musika Eskolako lagunekin batera, Altsazun afaria egingo dute. Domekan, berriz, Valentzia aldera itzuliko dira.

Chulillako Banda 90eko San Martinetan Bergaran izan zen eta 1991ko martxoan, berriz, Bergarako Udal Musika Bandak Chulillara bisita egin zuen. Chulilla eta Bergarako musika taldeen arteko harremana Luis Gutierrez Bandako abanderatuari esker izan da posible. Luis Gutierrezen anaia bat eta arreba bat Chulillan bizi dira eta Luisek bertan igarotako egonaldietan bi herrien arteko elkartrukea egiteko ideia sortu zen. Chulillan 600 bat bizilagun bizi dira eta, Valentzia osoan bezala, herriko bandari izugarrizko garrantzia ematen zaio. Valentzian musika bandek orkestak baino askoz ere tradizio haundiagoa omen daukate.

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34


LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

## Zaharren astea Mizpirualde egoitzan

Hirugarren adinekoen astea izango da datorren astelehenetik domekara bitartean Mizpirualde zaharren egoitzan. Astelehenean, arratsaldeko 5etan, txokolatada eta dantzaldia izango dira eta 7etan, Musika Eskolako soka taldearen emanaldia. Martitzeanean, 17:30etan, Ohiulari Klown taldeak "la memoria del fuego" antzeztuko du eta 19:00etan, Musika Eskolako trikitixa taldearen emanaldia izango da. Eguaztenean, 17:00etan, mus, punto, briska, domino eta igel jokuak izango dira eta 19:00etan, Aritzeta taldearen emanaldia; eguenean, bideo emanaldia arratsaldeko 5etan eta Musika Eskolako txistu taldearen emanaldia 19:00etan; eguakitzean, Mariaren Lagundiko ikasleek antolatutako jolasak eta Musika Eskolako metal taldea izango dira eta zapatuan, arratsaldeko 5etan, Centro cultural Extremeñoren emanaldia. Domekan, asteari amaiera emateko, meza izango da 11:45etan eta eguerdiko 13:00etan, bazkaria, dantzaldia, opari banaketa eta Xamatz dantza taldearen emanaldia.






Aurrerantzean, Bergarako eta beste hainbat herritako zaborrak Beasainera eramango dira.

# Arrasateko zaborrak erretzeko Akei planta itxiko da

## *Europar Batasunaren kutsadura irizpideak ez ditu betetzen*

Arrasatetik Kanpazarrera bidean zaborrak errausteko dagoen Akeiko planta itxi egingo da zapatuan. Akeik ez du Europar Batasunak hiriko hondakin solidoen errausketari buruz ezarritako araudia betetzen eta horregatik itxi egingo da. Bertako 10 langileak greban dira urriaren 14tik beraientzako lan alternatiboa aldarrikatuz.

Akei 1982 urtean hasi zen lanean eta bere garaian Estatuko errausketa plantarik onenetakoa izan zen. Akei eraikitzeak 130 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan zuen eta Diputazioaren (kostoaren 2/3ak) eta planta erabiliko zuten udalen artean (1/3a) ordaindu zen. Gaur egun Deba Garaia (Bergara tartean), Deba Behea eta Ermua, Mallabia, Zaldibar eta Aramaiotik zaborrak eramaten dira bertara, egunero 150 tona zabor errausten direlarik. Baina Akei erabat zahartuta geratu da eta ezinezkoa izan da Europar Batasunaren kutsadura irizpideetara egokitzea. Hain zuzen ere, espezializatutako enpresa frantses batek 1990an egindako azterketak aukera hori baztertzen zuen. Akei ixten denean Deba Beheko zaborrak Azpeitiko Lapatzeko zabortegira eramango dira eta Deba Garaikoak, berriz, Beasaingo Sasietara. Zaborren bilketa orain arte bezala egingo da eta Akein transferentzia planta bat egingo da zaborrak bertan laga eta ondoren kapazidade haundiko kamioietan zaborra Beasainera eramateko.

Goierri
AUTOGIDARIEN ESKOLA
Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Maxim's
☎ 76 20 61

# Txapa Irratiak gaurtik aurrera ekingo dio berriz ere emititzeari

## *Astean lau egunetan emitituko dute, eguaztenetik domekara*

Txapa Irratiaren programazio berria bihartik aurrera sintonizatu ahal izango da FM 97.25ean. Astean lau egunez izango da martxan Txapako programazioa, asteazkenetik ostiralera gaueko 9etatik 11etara eta domeketan goizez edo arratsaldez (astero txandakatuz, goizez 12etatik ordubietara eta arratsaldez 9etatik 11etara). Txapa Irratiak San Martzialetan utzi zion emititzeari eta 25 bat lagun izan dira azken asteetan programazio berria zehazten. Kepa Ramos Txapako arduradunetako baten hitzetan, *"lehengo jendeak jarraitzen dugu eta programazioa ere aurrekoaren antzerakoa izango da, hiruzpalau saio berri izango dira. Programa guztiak euskaraz izango direla azpimarratu daiteke beharbada. Bestela, oso jende berri gutxi hurbildu zaigu, Bergara alde hortatik behintzat nahiko hotza da"*.

Herritarren partaidetza bultzatzeko, Txapa Irratiak dei egiten du programaren batean parte hartzeko interesa duten guztiei larunbatero, eguerdiko 12etan, Kultur Etxean egiten diren bileretara joateko.

Txapak Zabalotegiko dorrean duen lokaletik emititzen jarraituko du. Ekipamenduari dagokionez aparailu berriak izango dira bertan. Kepa Ramosek azaldu digunez, *"San Martzialetan, txoznarekin, diru dexente lortu genuen eta tresna berriak erosi ditugu: konpaktoa, anpli bat, Udalak ere nahasketa mahai bat eman digu... Bestalde, lokalaren hezetasuna gutxitzeko ere aparailu bat jarri dugu"*.

Entzule zein interesatuek 76 05 41 telefono zenbakira deitu beharko dute Txaparekin harremanetan jartzeko.



FM 97.25ean hartu ahal izango da Txapa Irratia. ARTXIBOA.

### EGITARAUA

**Urriak 31, eguena**
21:00: Programazio berriaren aurkezpena.
**Azaroak 1, eguakitza**
21:00: Plastikozko janariak.
**Azaroak 3, domeka**
12:00: Atzo hala, gaur hola eta bihar ez dakit nola.
13:00: Ondas libres para diales amordazados.
**Azaroak 6, eguaztena**
21:00: Kaxotan.
**Azaroak 7, eguena**
21:00: Piñu arteko ilargia.
22:00: Bidetxurra.
**Azaroak 8, eguakitza**
21:00: Zurrunbilo kaotikoa.
**Azaroak 10, domeka**
21:00: Zuhaitz artean Josetxo karate egiten.
**Azaroak 13, eguaztena**
21:00: Teak apurturiko gabak.
22:00: Espazioko sikonautak.
**Azaroak 14, eguena**
22:00: On The Road.
**Azaroak 15, eguakitza**
21:00: Plastikozko janariak.
22:00: E.H.E.
**Azaroak 17, domeka**
12:00: Atzo hala, gaur hola eta bihar ez dakit nola.
13:00: Ondas libres para diales amordazados.
**Azaroak 20, eguaztena**
21:00: Kaxotan.
**Azaroak 21, eguena**
21:00: Bidetxurra
22:00 Piñu arteko ilargia.
**Azaroak 22, eguakitza**
21:00: Zurrunbilo kaotikoa.
**Azaroak 24, domeka**
21:00: Zuhaitz artean Josetxo karate egiten.
**Azaroak 27, eguaztena**
21:00: Teak apurturiko gabak.
22:00: Espazioko sikonautak.
**Azaroak 28, eguena**
21:00: Kolektiboaren programa.
22: 00: On The Road.
**Azaroak 29, eguakitza**
21:00: Plastikozko janariak.
22:00: E.H.E.

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1


ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

*Estetika*

# Udaren ondorioak



**LUPE GARCIA**
*(Estetizista)*

**- Udaren ondorioz, nolako arazoak izaten dira aurpegi azalean?**

- Kasuen arabera izaten da, segun zenbat ordu eman ditugun eguzkitan edo itsasoan. Azaleko zelulak berritzen, regeneratzen joan behar dira eta eguzkiarekin, epidermisean hilik geratzen dira zelula horiek eta orduan azalak, udako morenoa galtzen duen heinean, *peeling* izeneko tratamendua behar izaten du, kremen bitartez hildako zelulen exfoliazioa egin ahal izateko. Azal tipoaren arabera *peeling* tratamendu ezberdinak daude eta horrekin morenoa zertxobait gehiago mantendu eta azala garbiagoa izatea lortuko dugu. Baina *peelinga* tratamendu oso baten osagarri izaten da.

**- Zertan datza tratamendu hori?**

- Tratamendu diferenteak daude baina tratamendu standarra esne eta tonikoak aplikatzea, *peelinga*, bitamina eta krema egokien ionizazioa (aparailu baten bidez anpollan barrurago sartzea), masaia (tonifikantea, erlajatzeko..., asko daude) eta maskarilla jartzea litzateke. Tratamendua ordu t'erdi ingurukoa izaten da baina beti ere pertsona, arazoa edo adina izan behar dira kontutan. Horren arabera sesio kopurua zehaztu beharko da.

**- Sasoi honetan izaten da arazo gehien aurpegi azalarekin?**

- Bai, sasoi honetan jendeak azala eta aurpegia gehiago zaintzeko ohitura dauka, behar gehiago dagoelako baita. Eguzkia joaterakoan, jendeak zimurrak dituela ikusten du eta orduan zaintzeko beharra duela ohartzen da. Azala ohizkoa baino sikuagoa izaten da urte sasoi honetan.

**"Eguzkiaren ondorioz, azala ohizkoa baino sikuagoa izaten da urte sasoi honetan"**

**- Tratamendua egiterakoan, zer gomendatzen duzu?**

- Etxean krema egokiak izan ezkero azala baldintza onenetan mantendu dezakegu eta bestela hilean behin edo, berriz ere tratamendua jasotzea ondo dator. Eta ahalik eta ohitura osasuntsuagoak izan, orduan eta hobeto izango dugu azala.

**- Bestelako arazorik izaten da orain?**

- Aurpegian mantxa ilunak ere agertzen dira eguzkiaren eraginez eta hori ebitatzeko protekzio altuko kremak eta eguzkia zuzenki ez hartzea gomendatzen da, prebentzioa behar beharrezkoa da. Bestela azido glikolikoarekin exfoliazioa egin beharra dago, maskarilla jarriz. Mantxa suabeak badira glikoliko estetikoarekin eta fuerteagoak badira, berriz, glikoliko medikuarekin. Hemen biak erabiltzen ditugu. Bestalde deshidratazioarekin zimur txikiak agertzen dira batzuetan baina azala hobetzean desagertu egiten dira. Eta aknea eguzkiarekin desagertzen den arren, gero berriz agertzen da. Hala ere, kasu askotan soluzioa norberak izaten du, piska bat zaintzea nahikoa izaten da askotan.



Azaleko zelulak berritzen, regeneratzen joan behar dira.

MUJIKA
Burdinaki denda
Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

# BERGARAKO osasun gida

**ALBAITARIAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARATZ (ROMAN LAZPIUR) | Zurradero, 6 behea | ☎ 76 70 67 |
| • ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA) | Mobila: 908 77 17 32 | ☎ 76 43 29 |
| • IRASTORZA BENGOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK) | Iribar baserria ANTZUOLA | ☎ 76 63 46 |
| • NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47 | Koldo Eleizalde, 28 | ☎ 76 27 97 |

**ANALISI KLINIKOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • LABORRA ISABEL | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |

**BARNE MEDIKUNTZA:**

| | | |
|---|---|---|
| • IRIGOYEN VICTOR | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |

**DENTISTAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ASTIAZARAN SOLOZABAL | Iparragirre, 1 behea | ☎ 76 27 95 |
| • BERGARA HAGIN KLINIKA | Bidekurutzeta 6, 2 | ☎ 76 05 77 |
| • GOROSABEL J. ALBERTO | Fraiskozuri, 5 behea | ☎ 76 56 88 |
| • IRIARTE IDOIA | Artekale 1, 1. C | ☎ 76 01 65 |
| • SUDUPE FELIPE | Matxiategi, 18 behea ezkerra | ☎ 76 07 66 |
| • GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. | S. Arrieta 3, 2. B | ☎ 76 38 54 |

**FISIOTERAPEUTAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL) | Masterreka, 7 4. C | ☎ 76 43 71 |

**GINEKOLOGOA:**

| | | |
|---|---|---|
| • SERRANO DOKTOREA | Ramon María Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |

**MASAILARIAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • AGIRREZABAL JOSE JABIER | Boni Laskurain 1, 2. A | ☎ 76 15 74 |
| • AZPEITIA IRUNE | Agorrosingo igerilekuak | ☎ 76 20 51 |
| • CASANELLAS JABIER | Boni Laskurain 5, 2. E | ☎ 76 03 78 |
| • MARTINEZ LUIS JABIER | Masterreka 7, 3. A | ☎ 76 51 18 |

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA:**

| | | |
|---|---|---|
| • BENITO ISABEL | Bidekurutzeta 46, behea | ☎ 76 52 62 |

**MEDIKUNTZA OROKORRA:**

| | | |
|---|---|---|
| • ARCINIEGA JULIO | Boni Laskurain 3, 1. B | ☎ 76 37 50 |
| • OXIRONDO KONTSULTATEGIA | Boni Laskurain 2, behea | ☎ 76 20 50 |

**PEDAGOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOJIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | Simon Arrieta 3, 2. E | ☎ 76 26 42 |

**PODOLOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • ALTUBE EDURNE | Simon Arrieta, 2 | ☎ 76 07 84 |
| • AZPIAZU ARANTZAZU | Herri Lagunak, z/g. | ☎ 76 41 32 |

**PSIKIATRA:**

| | | |
|---|---|---|
| • GALLASTEGI PABLO | San Martin Plaza 2, 1. ezkerra | ☎ 76 26 64 |

**PSIKOLOGOAK:**

| | | |
|---|---|---|
| • PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | | ☎ 76 14 80 |
| • URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 53 13 |
| • ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA) | | ☎ 76 30 76 |
| • FERNANDEZ J.R. | Ramon Maria Lilí, 2 | ☎ 76 59 39 |




Tomas Larrañagak 14 urte daramatza nekazari lanetan.

# Tomas Larrañaga

## Baserritar ekologikoa

**Antzuolako Lapatza baserrikoa da Tomas. Baserritik bizi da. 14 bat urte darama nekazari lanetan; barazki ekologikoak produzitzen bospasei urte. Biolurren (Gipuzkoako nekazari biologikoen elkartean) eta Ekonekazaritzaren (Euskadiko nekaaritza ekologikoaren federazioan) bultzatzaile eta lehendakari da.**

**Esaiguzu Tomas, zer da nekazaritza ekologikoa?**

- Europar normatibak dio sintesizko ongarri kimikorik eta pestizidarik erabiltzen ez duen nekazaritza, ongarriketa organikoa edo naturala egiten duena, eta gainera txandaketa edo errotazio on bat antolatuta duena. Baina ez da hori bakarrik. baita. Hitz gutxitan, lehen egiten zen nekazaritza dela esan daiteke, baina hori ere ez da. Nekazaritza konbentzionalaren helburua da ahalik eta etekinik gehien ateratzea eta lehenbailehen. Ekologikoarena lurra gero eta aberatsagoa izatea da.

**- Txandaketa egiten duzue?**

- Nekazaritza ekologikoaren oinarria da, beste edozerk baino garrantzi handiagoa du.

**- Nolako ongarriak erabiltzen dituzue?**

- Landutako satsa. Norberaren esplotazioko hondakinak karbonoa duen materia guztiarekin nahastuz egiten da.

**- Jatorriz bertakoak diren barazkiak landatzen dituzue?**

- Duela 3 urte bertako barazki bila hasi ginen, baina konturatu ginen gehienak galduta zeudela. Topatu ditugunekin probak egin ditugu: orain dela bi urte 8 tomate mota landatu genituen negutegian. Ez zuten etekin onik eman. Dena den, aberastasun hori ezin da alde batera laga, lantzen joan behar da. Hasita gaude gelditzen diren bertako haziak biltzen, eta baserritarren artean trukatzen edo saltzen, ugaritasuna gal ez dadin. Ekologikoan ugaritasuna ez dago oraindik oso landuta, hazi konbentzionala erabiltzen dugu, baina 2.000. urterako ekologikoak erabili behar ditugu.

**- Negutegia ekologikoa da?**

- Negutegietan nekazaritza intentsiboagoa egiten da soroan baino, eta ez da hain ekologikoa, etekina ateratzeko fortzatu egiten da eta mikroklima artifiziala sortzen delako plastikoaren bidez.

**- Zenbaitek dio nekazaritza ekologikoan produktu kimikoak**

**“Kontsumitzailea oso gaizki ohituta dago, zorri bat ikusi orduko ez du nahi barazkia”**

**erabiltzen direla.**

- Ferietan ondoko postuetakoek duela hiru urte esaten zidaten gezurretan nenbilela, eurek bezala ongarri kimikoak erabiltzen nituela. Orain esaten dute eurek ere nekazaritza ekologikoa egiten dutela, eta ez dute egiten. Horrek nahasmena sortzen du.

**- Ez dago kontrolik ala?**

- Orain, Jaurlaritzaren dekretu bat medio, inspektoreak hasiko dira kalitatea kontrolatzen. Ekologikoan zerbait kontrolatzen da, konbentzionalean ezer ere ez. Noizbehinka albaitariak pasatzen dira baserritarrak ez dezan eraman konejoa bizirik, odolkiak edo osasun erregistroa behar duten produkturik... baina barazkiei ez zaie analisirik egiten, residuorik baduten edo pestizidekin epea bete den ez da zaintzen... Guk gutxi, baina kontrol batzuk baditugu (hemendik aurrera gehiago); nekazaritza konbentzionalekoek ezer ere ez.

**- Auskalo zer jaten dugun, ezta?**

- Ezin da jendea beldurtu, baina gauza fuerteak gertatzen dira. Klenbuterola ez dago kontrolatuta, hormonak erabiltzen dira; behi zoroak direla eta, seguru nago hemen kasu bat baino gehiago izan dela; azkenaldian, euria egin duenean, jendea botaka, etabar ibili da. Birus batengatik izan dela esan dute. Nik uste dut urarekin eta janarekin duela zerikusia. Kasualitatea izaten da, baina euria egiten duenean jendea goitik eta behetik ibiltzen da.

**- Nekazaritza ekologikoko eta konbentzionaleko barazkiek zein alde dute?**

- Itxuraz ezer ez. Kalitatean bai.

**- Produktu bat erostean zer begiratu behar da?**

- Lehenengo bertako ekologikoa den. Nire ustez bertako produktuek kalitaterik onena emateko ekologikoak izan behar dute. Gero, hemengoa den produktua erosi behar da, eta, azkenik, kanpokoa. Merkeena erostea izorratutako produktua erostea da: produktu merkeak nekazaria izorratzen du, lurra izorratzen du eta bizitza izorratzen du. Produktu hori erostea denon aukeran dago, inor ezin da behar-




Industria hornikuntzak
UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

tu ez erostera, baina kontutan hartu behar da produktu hori zergatik den hain merkea: nekazariari oso gutxi ordaindu diotelako; eta lurra, ingurugiroa, eta dena kaltetu egin delako. Hor irabazten ateratzen direnak oso gutxi dira.

**- Zein iritzi duzu nekazaritza konbentzionalaz?**

- Txarrak eta hain txarrak ez direnak daude, eta aukeratzen jakin behar da. Jakin behar da noren produktuak diren, eta baserritar horrek nola lan egiten duen. Hemengo baserriak bizirik iraungo badu, eta hemengo produktuak mantenduko baditugu, hemengo produktuak erosi behar dira.

**- Nekazaritza ekologikoan edozein produktu ekoiztu edo produzitu daiteke?**

- Bai.

**- Zuen produkzio fuertea zein da?**

- Lehen letxuga eta tomatea, baina monokultiboa edo produktu gutxi landuz gero lurra gaisotu egiten da, eta arazoak sortzen dira. Beti produktu bera ipiniz gero, momorro berberei ematen zaie jaten; momorro horiek nagusi egiten dira, oreka apurtzen da, eta azkenean, barazkia ere jan egiten dute. Hortaz, produktua aldatzen joan behar da, lurrarekin harreman desberdina duten barazkiak sartu behar dira.

**- Nekazaritza eklogikoan kalitate-kantitate binomioari eustea posible da?**

- Ekologikoan % 20-30 gutxiago produzitzen dela esaten da, eta prezioa maila horretan igotzen dela, baina ez da hain erraza. Gu Ordiziako prezioen parean ibiltzen gara.

## “Esaten da ekologikoan % 20 gutxiago produzitzen dela, eta prezioa maila horretan igotzen dela, baina gu Ordiziako prezioetan gabiltza”

**- Zuk non saltzen duzu?**

- Antzuola, Bergara eta Arrasateko azoketan, Antzuolako eta Bergarako denda batzuetan, Gipuzkoako kontsumitzaile elkarte batean eta etxean.

**- Feria handietan ere ibiltzen zara.**

- Feria bereziak propaganda egiteko izaten dira. Feria handiez esan dezaket, ez dela kontrolik egiten, eta feria horientzat desprestigioa dela. Lana da aurkezten diren baserritarren produktuak eurenak diren ala ez kontrolatzea, baina gauzak ondo funtzionatzeko, egin beharreko lana da. Eta esan behar da ferietan ez dela saltzen. Jendea ez da erostera joaten, jai giroan ibiltzera baizik. Ferietan nor ikusten da karroekin edo poltsekin? Ondoen Bergarako San Martin ferian saltzen dut.

**- Kontsumitzailea gaizki ohituta dago?**

- Oso gaizki. Zorri bat ikusi orduko ez du nahi barazkia. Zer esanik ez txitxarak, etabar ikusiz gero. Eta bizitzaren katearen zati bat dela kontutan izan behar da.

**- Nekazaritza konbentzionaletik ekologikora aldatzea gogorra egin zaizu?**

- Oso gogorra, lana handitu eta etekina gutxitu egin zelako. Haizearen kontra ibiltzea ez da erraza. Antzuolan ez dut uste jende gehiegik ezagutzen duenik nekazaritza ekologikoa: eskolako umeak izan ezik, inor ez da etorri baserrira. Kanpotik, berriz, jende asko etortzen da. Ez dago ezer berezirik ikusteko, Euskal Herrian badaude esplotazio politagoak eta txukunagoak, baina ekologikoa egitea posible dela ikustera etortzen dira: Madriletik autobusak etorri izan dira, ingenieritza es-



“Antzuola, Arrasate eta Bergarako azoketan saltzen dut, baina ondoen, Bergarako San Martin ferian”.

kolako galiziar eta Leongo ikasleak abuztuan 15 egun pasatzen...

**- Konpentsaziorik izan duzu?**

- Duda barik. Jende asko ezagutu dugu... ez naiz damutu emandako pausoaz.

**- Nekazaritza ekologikoko elkarteetako presidente zara?**

- Biolurrekoa (Gipuzkoako elkartea) eta Ekonekazaritzakoa (Euskadiko elkartea). Hiru urte daramat Biolurreko lehendakari eta bi federaziokoa; baina batez ere baserritarra naiz. Nahiko baserritar tontoa lan horietan sartu naizelako, ez baitago errekurtsorik.

**- Zer da Biolur?**

- Barazkiekin, frutekin eta jaten genuen gauza guztiekin kezkatuta geunden baserritar, kontsumitzaile eta teknikari batzuk bilera batzuk egiten hasi ginen. Produktuak ekologikoak edo ahalik eta pestizida eta residuo gutxien izan zezaten nahi genuen. Nekazaritza ekologikoaren berri izan genuen, eta Biolur sortu zen. Biolurren helburua nekazaritza ekologikoa bultzatzea da. Nahi duen jende guztiak har dezake parte: teknikoek, kontsumitzaileek, baserritarrek...

**- Biolurren dauden nekazari guztiek egiten dute nekazaritza biologikoa?**

- Maila desberdinak daude: batzuk nekazaritza konbentzionaletik ekologikora pasatu eta lehen urratsak ematen ari dira, birmoldaketa prozesuan daude; beste batzuk erabat sartuta daude...

**- Jendeak ezagutzen du nekazaritza ekologikoa?**

- Gero eta jende gehiagok daki eta administrazioak ere aldaketa handia eman du azken bi urteetan. Orain, Eusko Jaurlaritzaren dekretua irten denetik, gauzak hobeto joango dira, nahiko mobida dexente dago azkenaldi honetan, eta baserritarrak serioski baloratzen ari dira pauso hori eman ala ez.

**- Zenbat zabiltzate orain nekazaritza ekologikoa egiten?**

- Gero eta gehiago, gero eta interes handiagoa dagoelako, bai kontsumitzaileen aldetik, bai baserritarren aldetik.

**- Nekazaritza ekologikoak non du indarrik handiena?**

- Austrian, Alemanian, Finlandian, Suezian... Hegoameriketan ere mobida handia dago: errekurtso barik nekazaritza egiten dute.

**- Baserriaren etorkizuna nola ikusten duzu?**

- Baserri eta esplotazio txikiak ditugu, eta lurrak lantzeko eta mekanizatzeko zailak; orduan beste modu batera konpentsatu beharko litzateke. Aukerak badaude: orain baserri asko nekazal turismo bezala ireki dute; esplotazioetan gehiago elaboratu produktua; salmenta zuzena jarri baserrietan; baserritarrak baserri inguruak garbi eta txukun edukitzearren, baserritarrak bizitza guztian egin duena, ordaindu.


"Orain, Eusko Jaurlaritzaren dekretua irten denetik, gauzak hobeto joango dira eta baserritarrak serioski baloratzen ari dira nekazaritza biologikora pasatzea".

**"Hemengo baserriak bizirik iraungo badu, eta hemengo produktuak mantenduko baditugu, hemengo produktuak erosi behar dira"**

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA
Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

# Ura modu egokian erabiltzen duzu? Edateko, iturriko ala boteilako ura?



**Xabier Egidazu**

Ez dut uste, ez ditut ura aurrezteko gomendioak jarraitzen. Edateko iturriko ura hartzen dut. Ona den? Ez da hain ona baina etxean ez dugu ekartzen boteilakua.



**Jose Luis Gabilondo**

Ni ahorratzailea naiz eta ura ere modu egokian erabiltzen dut, behar dena eta kitto. Edateko boteila eta iturrikoa, nahiz eta iturrikoak kloro asko izan.



**Mari Karmen Alkorta**

Bai, zaintzen dut piskat, arduratzen naiz dutxan orduerdi ez egoten eta horrela. Etxean iturriko ura hartzen dugu. Antzuolakoa naiz, eta han ura ondo dago.



**Jon Fernandez**

Bai, zertxobait zaintzen dut, ur gehiegi ez gastatzeko. Etxean ura iturrikua hartzen dugu eta uste dut ondo dagoela.



**Miren Leturia**

Bai, gehienbat hortzak garbitzean iturria itxi eta ur justua erabiliz, bainatu beharrean dutxatuz, ahalik eta ur gutxien erabili. Edateko iturrikoa hartzen dugu, ondo dago.



**Maite Maiztegi**

Batzuetan bai baina beste batzuetan grifoa zabaldu eta ez naiz arduratzen. Edateko, gehienetan, iturriko ura hartzen dugu; boteilakoa ere ekartzen dugu.

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



## *Domusainduen eguna*

Kristautasuna zabaltzerakoan beste erlijioek sorturiko sinesmen, kultu etabarrekin aurkitu zen. Ezagunak dira kristauturiko kultu, leku, errito eta festak. Hauetariko bat ostiral honetan ospatuko dena da: Santu guztien eguna.

Erromako erlijioan ezagunak dira kanpoko jainko eta jainkosen kultuak. Arazo handirik gabe egiten zituzten bereak kanpotarrak ziren sineskerak. Legenda zahar batek dioenez, erromatarrek garai hartako mundu ezaguna konkistatu zutenean tenplu dotore bat egin nahi izan zuten Erroman bertako eta kanpoko jainko-jainkosei dedikatua. Tenpluaren erdian bertoko jainko nagusiaren irudia omen zegoen eta inguruan beste konkistatuetariko jainkoen irudiak erdikoari begira. Jende herritarraren esanetan ez dirudi oso ondo konpontzen zirenik Erromako eta kanpoko jainkoak: konkistaturiko probintzi batetan Erromaren kontrako altxamentu bat izaten zenean, erdira, Erromako jainkoari begira zegoen altxaturikoen jainkoak buelta ematen omen zuen bizkarra emanez Erromatar jainkoari. Hala ere, jainkoen arteko haserrea ez zetorkien oso gaizki bertako agintariei: azkar asko bidaltzen omen zituzten euren legioak horrelakorik gertatzen zenean matxinaturiko jendearen kontra.

Beranduago, izugarrizko tenplu bat egiteko erabakia hartu omen zuten (Agripa-k aginduz egina, Kristo aurreko 27. urtean) jainko guztiak agurtzeko asmoarekin. Hau Panteon izenez ezagutzen dugun tenplu ospetsua da. Bertan biltzen omen ziren Erromatar Inperioko jainko garrantzitsuenen irudiak. VII. mendearen hasieran, orain arte paganismoaren bilgunea izandakoa kristau tenplu bihurtu zen. Tenplua Santa Maria Martiri Guztien Zaindariaren (martiriek osatzen dute santuen talde ugariena) izenpean jarri zuten eta jaia, hasiera hartan, maiatzean ospatzen zen. Baina laster pasatu zen azaroaren hasierara, izan ere maiatzean ez baitzegoen jateko adina joaten zen jende guztia mantentzeko, baina azaroan, berriz, bai, uzta guztiak jasota zeudelako. Horrela, hasieran paganismoaren leku garrantzitsua zena kristau leku bihurtu zen eta santu guztiei dedikaturikoa.

**Xabier LARRAÑAGA**



## *Setien Gotzaiaren hitzak*

Azken egun hauetan, Gipuzkoako gotzaiaren hitzek oihartzun handia izan dute Euskal Herriko zein Espainiako komunikabideetan. Oraingo honetan (beste zenbaitetan bezala), zenbait komunikabidek Gotzaiaren gogoeten ausnarketa serioa egin beharrean, kritika gogor eta bortitzak zuzendu dizkiote.

Jose Maria Setien jaunak behin eta berriz errepikatu du berak ez duela bere izenean hitzegin, Elizaren izenean baino. Bere iritziz Euskal Herrian gaur egun bizi den egoera larria da, eta jende asko ari da egoera horren ondorio larriak pairatzen. Bere ustez, egoera hau luzaezina da eta lehen bait lehen irtenbideren bat bilatu behar zaio. Irtenbide hori bilatzen hasteko une egokia dela ere esan du.

Gutako bakoitzak Elizari buruz izango duen iritzia oso desberdina izango denaren zalantzarik ez daukat. Batzuek pentsatuko dute, Elizak ez daukala arazo honetan muturrik zertan sartu beharrik. Beste batzuek, aldiz, Euskal Herriarentzat ona izan daitekeen bitartean edozein erakundek parte hartu dezakeela usteko du. Hirugarren talde batek ere pentsa dezake, Elizak zeresan handia daukala Euskal Herriaren eta euskaldunon etorkizunean.

Niri ez dagokit Elizak zer egin behar duen eta zer ez duen egin behar esatea baina kasu honetan Jose Maria Setienen hitzak eta ausardia goraipatu nahi ditut.

Batetik, herri honen sufrimendua alderdi guztietatik begiratu eta aztertu duelako eta beste politiko eta herriaren ordezkari askok ez bezala, jende askoren iritziak, kezkak eta sentimenduak entzun eta sentitzeko prest egon delako.

Eta bestetik, kontra egin dioten pertsona askoren aurrean izan duen jokabidea benetan ona izan delako. Berak eman duen exenplu edo adibidea (Elizarekin bat etorri ala ez) jarraitzeko modukoa iruditzen zait.

**Josune IÑARRA**


# Ika ikastaroa

**Ikan berbetan ikasi nahi badok/n, hator JARDUN Elkarteak antolatutako Hika ikastrora.**

**NOIZ: Azaroaren 23 eta 24ean. NON: Garaion (Araba).**

**MATRIKULA: Bazkideak: 3.000 pta. Bazkide ez direnak: 3.500 pta.**

**IZEN-EMATEA: Azaroaren 20a baino lehen Jardunen ( 76 08 19 / 76 36 61).**

## Uraren garrantzia



Kaixo ura! izenburuko erakusketa ikusgai izan da egunotan Kultur Etxean. **Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren erakusketa** ibiltari honetan, panelen bidez, uraren ziklo integrala, Kontsorzioak probintzia osoan egiten duen lana edo ibaien saneamendurako dauden plangintzak azaltzen dira. Herritarrez gain, herriko ikastetxe ezberdinetako ikasleak ere Kultur Etxera hurbildu dira erakusketa ezagutzeko. Astelehenetik eguenera bitartean 20 bat talde pasatzekoak ziren Kultur Etxetik. **Arantxa Oria** eta **Mikel Urruzola** erakusketako gidariek nahi beste azalpen eman dizkiete. Erakusketari amaiera emateko gaur, osteguna, arratsaldeko 7etan uraren kultura berriari buruzko hitzaldia izango da Kultur Etxean, **Victoriano Gallastegi** eta **Iñigo Elosegi** Kontsorzioko presidente eta gerentearen eskutik.



## Tere eta Miguel Angel

**Miguel Angel Elkoroberezibar** Berrigarako zuzendari ohia eta **Tere Beloki** Euskadi Irratiko kazetari legazpiarra zapatuan ezkondu ziren. Elizkizuna Legazpiko **Telleriarte** auzoko **San Juan** baselizan izan zen eta ondorengo bazkaria, berriz, Lasa jatetxean izan zuten. Guztira, 180 gonbidatu inguru bildu ziren eta guztiek primeran igaro zuten eguna. Ezkonbidaia egiteko Japonera abiatu ziren astelehenean Tere eta Miguel Angel. Zorionak!!


igor eta Txomin

*Pintura orokorrean.*
*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*
*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*

ANTZUOLA ☎ 76 60 39
BERGARA ☎ 76 19 98

*Deco-Textil*
ZANGITU
**Etxerako lentzeria**
**Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak**
**Bisiloak, tapizak, etab.**
**Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69**

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
**Bidekurutzeta, 29**
**☎ 76 22 90 - 76 26 75**



## Finlandiatik Bergarara

**Finlandiako Tapiola abesbatzak** kontzertu benetan aipagarria eman zuen barikuan Frontoian, Udazken Kulturaleko programazioaren barruan. Tapiola orain lau bat urte Bergaran izan zen eta orduan bezala Frontoian bildutako ikusleak erabat txunditu zituzten finlandiarrek. **Kari Ala-Pöllänen** zuzendariaren eskutik, abesbatza osatzen duten gazteek instrumentuekin eta bereziki ahotsarekin duten trebezia azaldu zuten ikusleen gozamenerako. Mundu osoko kantuak abestu zituzten jatorrizko hizkuntzatan (tartean Bustoren *Zai itxoiten*) eta ondoren, kontzertuko bigarren zatian, doinu finlandiarrak. Zenbait kantutan zuzendari gabe aritu ziren kantuan eta beste askotan koreografia dotoreak landu zituzten. Munduko haur abesbatza onenetarikoa omen da Tapiola eta Bergaran ere euren maila azaldu zuten...



## Zertan *dihardute* ba?



**Yoshiyasu Zenitani** japoniarraren (argazkian), Pello Alberdi elgetarraren eta Rikardo Azkargorta eta Bingen De Pedro bergararren pintura erakusketa ikusgai dago Bilboko Berta Belaza galerian (Arrikibar plaza, 5.zenbakia) datorren azaroaren 16ra arte. 1995 eta 1996an, Zenitaniren bidez, Japonen (batez ere Osaka eta Kobe inguruan) hainbat erakusketa egin dituzte elkarrekin eta oraingoan 16 koadro erakusten dituzte Bilbon, gehienak lan berriak direlarik. Ondoren, Madrilen ere ikusgai izango dira koadroak.

Airtel
HAIZETEL
Telefonia mobila
Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Noemi Agirretxe

**Donostian jaio zen, bederatzi urterekin Marbellara joan zen eta 22 urte arte bertan bizi izan da. 14 urterekin hasi, eta 21 arte modelo lanetan ibili zen; orain 24 ditu. Orain dela urte t'erditik Bergaran bizi da. Garate 2 poltsa dendan ari da lanean.**

**- Zergatik laga diozu modelo izateari?**
- Oso sinistuta eduki behar duzu, diru asko kentzen dizute, azpijoko asko dago...
**- Norako egin dituzu lanak?**
- Aldizkari, balla, pasarela, katalogoetarako... Bonaventureren modelo esklusiboa izan naiz Malagan...
**- Modelo izatearen onena?**
- Polita, femeninoa eta mirestua sentitzen zara.
**- Eta txarrena?**
- Friboloa izan behar da; ni ez naiz.
**- Modelo batengan nor fijatzen da gehiago emakumea ala gizakumea?**
- Desberdin begiratzen diote. Emakumeak kritikoagoak dira.
**- Modelo bat?**
- Naomi Campbellen gorputza, Christie Turllingtonen aurpegia.
**- Aldizkariak irakurtzen dituzu?**
- Emakumeenak: Elle, etabar.



*"Modeloen neurriez gezur asko esaten da. Alturan dituzunak baino 4-5 cm. gehiago esaten dira. Txisteak ahaztu egiten zaizkit. Gehien saltzea kostatzen zaidana: betiko itxuratik irtetzen diren poltsak"*

Modeloen poseetan eta aurpegiaren espresioan fijatzen naiz.
**- Kirolik egiten duzu?**
- Gizentzen banaiz flexioak eta antxintxika egiten dut.
**- Dendan gehien saltzea kostatu zaizuna?**
- Poltsa desberdinak: txarolezkoak...:
**- Gustatzen ez zaizun jaki bat?**
- Txokolatea.
**- Perfumerik erabiltzen duzu?**
- Mutilak erregalatutako bat, Aramis.
**- Kevin Costner ala Richard Gere?**
- Costnerrek musker aurpegia du, Gere kanekin oso interesgarria da.
**- Zomorroek beldurtu egiten zaituzte?**
- Hegaran egiten duten kakalardo moduko horiek.
**- Txisterik badakizu?**
- Denak ahazten zaizkit.
**- Kantari bat?**
- Annie Lennox, Greta y los Garbo, Alejandro Sanz...
**- Sekula argazkirik puskatu duzu?**
- Batez ere senargai ohienak. Nire zaletasunetako bat da.
**- Kolore bat?**
- Berdea eta beltza.
**- Superstizio bat?**
- Hamaika. Poltsan berakatz buru bat erabiltzen dut.
**- Kapritxosoa zara?**
- Oraingoa nire mutila da.

Felipe SUDUPE
Hagin klinika
Medikuntza eta zirugian lizentziatua.
Estomatologian espezialdua.
558. kolegiatua.
GIPUZKOAKO ODONTO-ESTOMATOLOGOEN ELKARTEA
Kontsultarako ordua aurretik eskatu.
Matxiategi 18 behea, ezkerra. ☎ 76 07 66

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

Garnish
Bitxitegia
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

## ETXEBIZITZA

**Garajea** salgai Boni Laskurainen. ☎ 76 25 61.

**Haur** bat duen bikote batek pisua alokairuan hartuko luke. ☎ 76 32 70.

**Pisua** alokairuan Antzuolan. ☎ 76 21 06.

**Garajea** (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Kontsulta**rako lokala alokairuan. ☎ 76 07 84.

**Garajea** salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauez).

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 54 98.

**Pisua** salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

**Donostian** (Amaran) pisua osatzeko 2 neska behar dira. ☎ 76 17 20 / 27 18.

**Garajea** saldu edo alokairuan jarriko nuke Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

**Gasteizetik,** 4 Km.ra, Arcaya herrian, 15.460 m2-ko lursaila salgai. ☎ 76 63 27.

**Pisua** salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

**Frontoian** pisua salgai. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisua** salgai edo alokairuan Barrenkalen. ☎ 78 70 30.

**Garajea** (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

## DENETARIK

**Peugeot 505** kotxea (SS-S) salgai. ☎ 76 30 01.

**Fagor termoa** (30 litro) salgai. Berria. ☎ 76 52 31.

**Neumatiko** eta llantak salgai, 185/60 R 14 (Golf III). 25.000. ☎ 76 31 16.

**Soka boskoteak** ezkontza elizkizunetan jotzen du. ☎ 76 57 80 (arratsaldez).

**Leioako** unibertsitatera arratsaldez joateko kotxea behar dut. ☎ 76 50 11.

**Seat Ronda** kotxea (SS-U) salgai. Egoera onean, 100.000 pta. ☎ 79 15 96.

**Donostiara** joan-etorria (17-22.00) egiteko kotxea behar dut. ☎ 76 46 26.

**Ford Scorpio** kotxea (SS-W) salgai. ☎ 76 28 07.

**Montesa** Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

**Citroen** C.15 kotxea (VI-N) salgai. ☎ (945) 27 59 30.

**Taberna** traspasatzen da. ☎ 76 01 95.

**Zaldia** alokatzen dut. 10.000 hilean. ☎ 76 30 01.

2. eskuko **bi solarium** salgai. ☎ 74 12 82/74 19 23.

**Portaroiloa** (komertziotakoa) salgai. ☎ 76 52 31.

## LANA

**Neska** euskalduna behar da etxeko lanak/haurrak zaintzeko. ☎ 76 57 93.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Lanak** ordenadorez pasatzen dira. ☎ 76 15 63.

**Neska** batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 30 52.

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Mate** eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Etxeko** lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

**Haurrak** edo helduak zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 57 01.

**Erizain** batek arratsaldez lan egingo luke. ☎ 76 54 52 (Jone).

**Majisteritzan** diplomatutako neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

**Unibertsitate** mailako klaseak. Estatistika, BBB eta UBI. ☎ 76 35 37.

**Astebukaeretan** etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 46 (eguerdiz).

**Amama** bat egunean 8 orduz zaintzeko pertsona heldu eta serioa behar da. ☎ 76 47 28 (gauez).

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza
Era guztietako igeltseritza lanak
Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

# BONOFOTOA








## Patxi Bakaikoa

**Patxi Bakaikoa**k jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Zupide baserria** zen**.** Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Patxi Bakaikoa**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

***Bergarako zein kaletan aurkitu ditzakegu atari eta balkoi hauek?***

________________________________________

**Izena:** __________ **Abizena:** __________ **Tfnoa:** __________

**Saria**
**10.000 pzta.**

**Moztu paper hau eta**
**ekarri astebete baino lehen**

**BERRIGARA**
**Errotalde Jauregia Bergara**

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

| 1 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Errotagain | 12 | 4 | 21 | 5 |
| 2. A Ze Flaxa Etxagi | 12 | 4 | 16 | 3 |
| 3. Jauja OH Zerezos | 9 | 4 | 15 | 11 |
| 4. Bildurbarek Opel/Lam | 7 | 4 | 20 | 15 |
| 5. Ogizun | 6 | 3 | 12 | 11 |
| 6. Mongatxurra | 6 | 4 | 19 | 13 |
| 7. Bar Canalejas | 4 | 3 | 11 | 10 |
| 8. Ortzi | 4 | 4 | 7 | 13 |
| 9. Azpeitxi Jatetxea | 3 | 3 | 11 | 13 |
| 10. Madura Industrias Gol | 3 | 3 | 4 | 9 |
| 11. Arloteak Oilagorra | 3 | 4 | 14 | 12 |
| 12. Ufala | 1 | 4 | 8 | 18 |
| 13. Pagomendi | 0 | 4 | 3 | 23 |

| 2 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Artusamak Bergatrans | 9 | 3 | 14 | 4 |
| 2. Etxagi | 9 | 3 | 10 | 6 |
| 3. Uve Bikoitza Jam | 9 | 4 | 9 | 12 |
| 4. Kayak Os Jardineiros | 9 | 4 | 19 | 8 |
| 5. Ezinleike | 6 | 4 | 9 | 9 |
| 6. Indargorri | 4 | 3 | 3 | 3 |
| 7. La Juve | 4 | 3 | 3 | 3 |
| 8. Eri | 3 | 3 | 7 | 8 |
| 9. Agirrebeña Jatetxea | 3 | 3 | 7 | 8 |
| 10. Soropotroak | 3 | 2 | 8 | 7 |
| 11. Agiñaspi | 0 | 2 | 3 | 8 |
| 12. Haltzari | 0 | 3 | 5 | 11 |
| 13. Autoberezi | 0 | 3 | 4 | 15 |

| 3 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Guadalest | 9 | 3 | 15 | 4 |
| 2. PJS | 8 | 4 | 11 | 6 |
| 3. FAC | 7 | 4 | 14 | 8 |
| 4. Jakina Patxaran Team | 7 | 4 | 9 | 17 |
| 5. Nekrofilikos | 6 | 3 | 12 | 9 |
| 6. Moskis | 6 | 3 | 11 | 7 |
| 7. Igandekoak | 6 | 3 | 11 | 11 |
| 8. EH Biterrak | 4 | 3 | 4 | 8 |
| 9. Txipiron | 4 | 3 | 6 | 10 |
| 10. Nahikari Hooligans | 3 | 2 | 5 | 5 |
| 11. MRW | 0 | 2 | 4 | 7 |
| 12. Ari Ari | 0 | 2 | 3 | 10 |
| 13. Construcciones Bergara | 0 | 4 | 9 | 18 |

| 4 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Manitou | 12 | 4 | 24 | 6 |
| 2. Osintxu | 10 | 4 | 15 | 6 |
| 3. Arbe Kirolak | 9 | 4 | 18 | 7 |
| 4. Etengabe | 6 | 3 | 8 | 6 |
| 5. Komando Piperrak | 6 | 4 | 16 | 20 |
| 6. SLO | 6 | 4 | 11 | 14 |
| 7. Matxakategi | 6 | 4 | 7 | 6 |
| 8. Panoramix | 4 | 3 | 8 | 8 |
| 9. Polideportivo Taberna | 4 | 4 | 8 | 14 |
| 10. Amilotx | 4 | 4 | 8 | 10 |
| 11. Pittixak | 3 | 4 | 15 | 16 |
| 12. Pata Negra | 3 | 4 | 9 | 18 |
| 13. Xurrupak | 3 | 4 | 7 | 19 |
| 14. Aldoka Maldoka | 2 | 4 | 9 | 13 |

## Jokoz kanpo



### Alberto Vicente

***Pata Negra***

**Zer moduz doa txapelketa?**
Gaizki, jokatutako partiduetatik bakarra irabazi dugu.

**Zure taldearen gauzarik onena eta txarrena?**
Onena dagoen giroa eta txarrena, oso txarrak garela.

**Kanporatu zaituzte inoiz?**
Bai, baloia eskuarekin jotzeagatik.

**Partiduak goizez ala arratsaldez?**
Domeka arratsaldetan.

**Txapelketako talderik onena?**
Errotagain.

**Aurrelari onena?**
Fernando Salinero.

**Sartu duzuen goleadarik handiena?**
10 eta 3 irabazi genien Osintxukoei.

**Eta jasotakoa?**
PJS taldeak 12 gol sartu zizkigun eta guk bakarra.

**Ze postutan amaitzea espero duzue?**
Sailkapenaren erdialdean.

**Liga profesionaleko jokalaririk onena?**
Ronaldo.

**Munduko kirolaririk onena?**
Carl Lewis.

**Euskal Herrikoa?**
Martin Fiz.

**Jateko plater bat?**
Paella.

## ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Mongatxurra-Bildurbarek Opel/Lam | 7-3 |
| Ogizun-Errotagain | 1-6 |
| Azpeitxi jatetxea-Madura Industrias Gol | 3-4 |
| A Ze Flaxa Etxagi-Ufala | 3-0 |
| Pagomendi-Ortzi | 0-4 |
| Jauja OH Zerezos-Arloteak Oilagorra | 3-2 |
| Autoberezi-Ezinleike | 0-2 |
| Kayak Os Jardineiros-Uve Bikoitza jam | 1-2 |
| Eri-Etxagi | 1-3 |
| Moskis-Txipiron | 3-4 |
| Nahikari Hooligans-Construcciones Bergara | 4-3 |
| Guadalest-Ari Ari | 8-2 |
| EH Biterrak-Patxaran Team | 1-6 |
| Igandekoak-Nekrofilikos | 1-8 |
| PJS-FAC | 2-2 |
| Aldoka Maldoka-Amilotx | 3-5 |
| Komando piperrak-Panoramix | 5-4 |
| Osintxu-Pata Negra | 4-3 |
| SLO-Pittixak | 6-4 |
| Xurrupak-Matxakategi | 1-4 |
| Etengabe-Polideportivo Taberna | 3-0 |
| Manitou-Arbe Kirolak | 3-0 |

## ■ PARTIDUAK

**Eguakitza barruan**

**09:00:** Nekrofilikos-Ari Ari • **Guadalest**
**10:00:** Guadalest-EH Biterrak • **Autoberezi**
**11:00:** Agiñaspi-Autoberezi • **EH Biterrak**
**18:00:** MRW-Nahikari Hooligans • **Artusmak**
**19:00:** Soropotroak-Artusamak • **Haltzari**

**Eguakitza kanpoan**

**16:00:** Etengabe-Panoramix • **Osintxu**
**17:00:** Osintxu-Aldoka Maldoka • **Panoramix**

**Zapatuan barruan**

**09:00:** Etengabe-Amilotx • **Pittixak**
**10:00:** Pittixak-Panoramix • **Polideportivo Taberna**
**11:00:** Komando Piperrak-Polideportivo • **Panoramix**
**18:00:** Xurrupak-Pata Negra • **Uve Bikoitza Jam**
**19:00:** Uve Bikoitza Jam-Ezinleike • **Etxagi**
**20:00:** Agirrebeña-Etxagi • **Ezinleike**

**Zapatuan kanpoan**

**16:00:** SLO-Arbe Kirolak • **Manitou**
**17:00:** Manitou-Matxakategi • **SLO**

**Domekan barruan**

**09:00:** Ogizun-Azpeitxi jatetxea • **Errotagain**
**10:00:** A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain • **Arloteak**
**11:00:** Arloteak Oilagorra-Bildurbarek • **Errotagain**
**16:00:** Pagomendi-Ufala • **Madura Industrias Gol**
**17:00:** Bar Canalejas-Madura • **Agiñaspi**
**18:00:** Agiñaspi-Haltzari • **Soropotroak**
**19:00:** Soropotroak-Eri • **La Juve**
**20:00:** La Juve-Artusamak Bergatrans • **Eri**

**Domekan kanpoan**

**09:00:** MRW-Txipiron • **Nahikari Hooligans**
**10:00:** Nahikari Hooligans-Ari Ari • **Patxaran Team**
**11:00:** C. Bergara-Patxaran Team • **Ari Ari**
**16:00:** Igandekoak-Moskis • **PJS**
**17:00:** PJS-Nekrofilikos• **FAC**
**18:00:** Guadalest-FAC • **Nekrofilikos**

## Txinpartak

### Akordiorik ez

Asteartean bildu ziren Udaleko eta Lagunak futbito elkarteko ordezkariak futbito txapelketako arazoari irtenbidea topatzeko. Bilduta bi ordu inguru izan ondoren, ez ziren akordioetara heldu. Udala ez omen dago inskripzioaren dirua jeisteko prest eta Lagunakekoak Udalak eskatutako igoera ez dutela ordainduko esan dute. Kanpoko kantxari dagokionez, arazoa konpondu arte beste nonbaiten jokatzeko aukera aztertzen ari da. Azkenik, Lagunak elkarteko kideek Udalarekin izandako bileraren berri emateko futbito txapelketako taldeetako delegatuen bilera antolatu dute datorren martitzenean, 19:00etan Kultur Etxean.

### Mendiko bizikleta

Fontsi Miner zenaren omenez Lokatza txirrindulari elkarteak antolatutako mendiko bizikleta ibilaldia arrakastatsua izan zen joan zen larunbatean. 84 txirrindularik hartu zuten parte eta 14 urtez azpikoek 16 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Nagusiek, berriz, 36 kilometroko ibilbidea egin zuten. Datorren urtean igande goiz batean antolatuko da ibilaldia jendearen partaidetza handitzeko.



53 lagunek hartu zuten parte joan zen zapatuan Behobia Txikian.

# Behobia Txikia

53 korrikalarik hartu zuten parte joan zen zapatuan Behobia Txikian. Goizeko 10:30etan elkartu ziren Agorrosingo igerilekuetan eta Emilio Uzinek eman zion irteera sinbolikoa 14 kilometroko lasterketari. Hortik, Trenbide Zaharreko bidea aprobetxatuz, Soraluzeraino joan ziren elkarekin 53 lasterkariak. Itzuleran, antxintxikalari batek tropeletik ihes egin zuen eta azkenean lasterketa irabaztea lortu zuen. Korrikalari hori Carlos Telleria izan zen eta Igerilekuetan egin zen bazkarian kopa bat jaso zuen sari moduan.

Behobia Txikiaren arrakasta ikusiz, datorren urtean ere errepikatu egingo dute antolatzaileek. Halere, datorren urterako emakumezkoak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte, aurtengo Behobia Txikian ez baitzen emakumezkorik izan.

Bestalde, datorren domekan, hilak 10, jokatuko den Behobia-Donostia lasterketarako izena emateko epea zapatuan bukatzen da eta Bergaran Bolintxo eta Xamartin kirol dendetan eta Lazkano oinetako dendan eman daiteke izena.

### Kirol Zerbitzuko txapelketak martxan

Udal Kirol Zerbitzuak 1996-97rako antolatu dituen txapelketetan parte hartzeko epea oraindik zabalik dago. Binakako pala txapelketan parte hartzeko 8 bikotek eman dute izena eta partiduak zapatu arratsaldetan jokatuko dira Osintxuko pilotalekuan, datorren astetik hasita. Binakako frontenis txapelketari dagokionez, partiduak domeka goizetan jokatuko dira Osintxun eta 8 bikotek eman dute izena. Partiduak datorren domekan hasiko dira. Eskuz binakako txapelketan, berriz, 5 bikotek eman dute izena. Partiduak zapatu goizetan jokatuko dira Zabalotegiko pilotalekuan eta hurrengo asteburuan hasiko dira.

Tenis txapelketa astelehenean hasiko da eta 10 lagunek eman dute parte hartzeko izena. Oraindik, datorren ostiralera arte zabalik dago epea.



## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

♦ **Bergara-Beti Sutan**
2. mailako erregionala.
Eguakitza. 15:30. Ipintza.
♦ **Bergara-Oiartzun**
Ohorezko mailako jubenilak.
Eguakitza. 17:15. Ipintza.
♦ **Bergara-Antzuola**
2. mailako jubenilak.
Zapatua. 17:00. Ipintza.
♦ **Bergara-Ondarroako Aurrera**
Ohorezko mailako kadeteak.
Eguakitza. 11:15. Ipintza.
♦ **Bergara-Zumaiako**
2. mailako kadeteak.
Eguakitza. 09:45. Ipintza.
♦ **Bergara-Almen**
2. mailako kadeteak.
Domeka. 09:45. Ipintza.
♦ **Bergara-UDA**
Lehen mailako infantilak.
Domeka. 11:15. Ipintza.

**SASKIBALOIA**

♦ **Bergara-Orio**
Senior neskak.
Eguakitza. 16:15. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Almen**
Kadete neskak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

**ESKUBALOIA**

♦ **Bergara-UPV**
Senior mutilak.
Eguakitza. 12:15. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Aloña Mendi**
Kadete mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Urola**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 17:30. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Urdaneta**
Senior mutilak.
Domeka. 12:30. Kiroldegia.

**PILOTA**

♦ **Kluben arteko txapelketa**
Kadete, jubenil eta seniorrak.
Eguakitza. 11:00. Pilotalekua.

# Mikel Garitano

## Saskibaloi taldeko kapitaina

**Mikel Garitano BKEko saskibaloi taldeko senior mailako kapitaina da. Arrasaten jokatzen ibilia, bere helburua BKErekin mailaz igotzea da.**

**- Zer moduz hasi duzue denboraldia?**

- Oso ondo. 4 partidu jokatu eta guztiak irabazi ditugu. Gipuzkoako lehen maila probintzialean gaude eta mailaz igotzeko, agian, jokalari altuagoak behar dira. Halere, igotzen saiatuko gara. Taldea oso ondo ikusten dut eta 3 lehenengoen artean sailkatzea espero dut.

**- Joan zen denboralditik aldaketarik egin duzue taldean?**

- Bai, Antzuolako bi jokalari sartu dira eta hegaletan indar gehiago dauka taldeak, baina erreboteak hartzeko indarra falta zaigu.

**- Taldearen gauzarik onena?**

- Uste dut defentsa ona daukagula eta hori sendotzen saiatzen gara, defenditzen ondo bagabiltza, kontraerasora irteteko aukera gehiago ditugu eta. Jokalari altuak falta zaizkigu eta antxintxika egitea garrantzitsua da puntuak sartzeko.

**- Senior mailako taldea desagertu egin zen eta orain 3 urte hasi zineten berriz. Zer moduz esperientzia?**

- Hasieran arraro samar aurkitu nuen nire burua. Arrasaten jokatu ondoren, berriz Bergarara etortzea aldaketa handia izan zen. Halere, oso giro ona dago hemen eta horrek asko laguntzen du.

**- Multak jartzen omen dituzue.**

- Bai, entrenamenduetara berandu etortzen denak 100 pta ordaindu behar ditu, justifikatu barik, entrenamendura etortzen ez denak 200 pta, eta partidura ez joateagatik 500 ptako multa dugu. Horrekin eta astero jokalari bakoitzak jartzen dituen 100 pezetekin afaritxoa egingo dugu.

**- Ze ezaugarri ditu taldeak?**

- 20 urtetik 26 urtera bitarteko jokalariak gara. Batzuetan esperientzia falta somatzen da, baina gazteek oso ondo jokatzen dute eta askotan partidua erabaki dezakete. Azkenengo minutuetan partidua berdinduta baldin badoa, berriz, nahiko gaizki ibiltzen gara irabazteko. Jokalari erabakior bat falta zaigu.

**- Duela 4 urte zegoen saskibaloi giroa berreskura al daiteke?**

- Oso maila eta jokalari onak zeuden eta maila handiko taldeei irabazi genien. Orain jende gutxi etortzen da gure partiduak ikustera, baina mailaz igotzen badugu giro hori berreskuratuko dugu.



"Esperientzia falta somatzen dugu, baina gazteak ondo dabiltza".

## "Mailaz igotzen badugu, jendea etorriko da berriz ere Kiroldegira"



*Argazkia: Alberto Herran*

# *Lokatza 1979-80*

Era honetako argazkiak lehen ere argitaratu izan ditugu atal honetan, garai batean Seminarioan antolatzen ziren futbol txapelketak oso ezagunak baitziren. Ekain eta uztail arratsaldetako tenperatura altuei aurre eginez, han ibiltzen ziren herriko futbol taldeak, nor baino nor futbolean. BKEko jokalari izan diren asko Seminarioan hasi ziren baloiari ostikoak ematen. Aste honetako argazkian 1979-80 denboraldian Lokatza futbol taldea osatu zuten jokalariak agertzen dira. Finala Maduraren aurka jokatu zuten eta partidua hutsna amaitu ondoren, penaltietan galdu zuten. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Manolo Rodriguez, Alfonso Berraondo, Gotzon Ibarra, Ato Meabe, Txus Iglesias, Joseba Perez eta Alberto Herran.

**Makurtuta:** Karlos Azkarate, Manuel Moreno, Oscar Franco, Paco Gimbert, Josue Lazkano eta Ritxar Meabe. Argazkian Carlos Rodriguez falta da.




# ALDI-IRALA

LEHEN AZKARATE ZENA

# supermerkatua




**Irizar, 3 BERGARA ☎ 76 10 71**

## *BERTAKO PRODUKTUAK BERTAN!!*

**Aldi-Irala** superrean bertako produktuei garrantzia berezia ematen diegu, gure bezeroei kalitaterik onena eskaini nahi diegulako. Horregatik, bertako **baserrietako** ortuetan egunero hartzen diren **barazki ederrak** eskaintzen ditugu eta nekazaritza biologikoari arreta berezia ematen diogu, **produktu biologikoak** eskainiz.



Gure hornitzaileak, bertako baserritarrak dira: **Zubikua, Mou, Oxanguren, Narbaiza, Lamariano, Lesarri, San Blas, Arizpe, Askatzu, Lapatza...** Aldi-Irala supermerkatuan, denetarik aurkituko duzu eta **egunero-egunero gure baserritarren produktuak** erosteko aukera izango duzu. Zapatuetako azokari itxoin barik!!

# Joxan

Ibargarai, 24 BERGARA
Telefonoa: 76 70 29

## arraindegia




**Haritz eta Ana zuen esanetara dituzue Joxan arraindegian.**

*Egunero, arrain fresko-freskoa Ondarroatik ekarria.*

*Mariskoa, Mutrikuko itxas-kabra, langostak...*

*Aukera zabala bertako arrainetan.*

**Ordutegia: 09:00-13:30 eta 17:00-20:00**

